

## Pribatuen Iragarkiak

### SPRI SA

#### 2573

IRAGARKIA, AFI Programari buruzkoa, Industria, Merkataritza eta Turismo sektoreetan inbertsioak egiteko finantza laguntzak ezartzen dituena.

Inbertsioak egiteko finantza laguntzen programa (AFI) industria arloko enpresa txiki eta ertainei (ETE) beren inbertsio proiektuak gauzatzeko behar zituzten finantzabideak eskuratzen laguntzeko xedeaz sortu zen, betiere baldintza egokietan eragiketa-eppei dagokienez eta interes-tasa onuragarriak eskainiz ohiko finantza merkatuarekin alderaturik, aplikatu beharreko hobariei esker kostuak murriztu ondoren. Programaren eraginkortasuna aztertu eta ontzat jo ondoren, bere aplikazio eremua merkataritza eta turismo sektoretara zabaldu zen.

Programa hasieratik egokitu da ETEentzako laguntzak metatzeari buruz Europako Batzordeak zehaztu izan dituen jarraibideetara, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorraren Printzipio Antolatzaileen Legearen Testu Bateratuan islatzen diren irizpide batzuk ere jaso ditu.

Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko 2006-2009ko Enpresa Lehiakortasun eta Gizarte Berrikuntza Planean jasotzen den bezala, finantzazioa ez da faktore bakarra, baina baldintzatzaile garrantzitsua da enpresek, eta bereziki ETEek hazteko eta beren lehiakortasuna hobetzeko dituzten aukerei begira.

Hartara, industria, merkataritza zein turismo sektorekoak izan, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen inbertsio prozesuak bultzatu nahi ditugu programa honen bidez, finantzazioa eskura dezaten merkatuak finantza erakundeen bitartez eskaintzen dituen baldintzarik onenetan. Bestalde, ahalegin berezia egin da administrazioko kudeaketa prozesuetan IKTek eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatzeko eta prozesu horiek errazagoak egiteko, baliabideak hobeki erabili eta enpresei erantzun hobea eta arinagoa ematearren.

Horiengatik guztiengatik, eta inbertsioen finantzazioa era eraginkorrean bultzatuko duten segmentu eta jarduketa zehaztuta baliabide publikoak erabiltzeko, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua SAK (SPRI SA) gainerako erakunde lagun-

## Anuncios Particulares

### SPRI, S.A.

#### 2573

ANUNCIO relativo al Programa AFI, por el que se establecen las Medidas Financieras a la Inversión en los Sectores Industrial, Comercial y Turístico.

El Programa de Ayudas Financieras a la Inversión (AFI) nació con una clara vocación de facilitar a las PYMEs industriales el acceso a los medios de financiación necesarios para ejecutar sus proyectos de inversión, en condiciones adecuadas por lo que se refiere a los plazos de las operaciones y a tipos de interés ventajosos respecto al mercado habitual financiero, una vez minorados con las bonificaciones aplicables. Tras una valoración positiva de su eficacia, se amplió su ámbito de aplicación a los sectores comercial y turístico.

El programa ha venido adaptándose desde sus comienzos a las distintas directrices fijadas por la Comisión Europea relativas a la acumulación de ayudas dirigidas a las PYMEs, incluyendo, asimismo, algunos criterios contemplados en el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

Tal y como contempla el Plan de Competitividad Empresarial e Innovación Social 2006-2009 del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, la financiación no es el único factor, pero sí es un condicionante importante en la posibilidad de las empresas, y en especial de las PYMEs, de crecer y poner en marcha actuaciones de mejora de su competitividad.

En esa línea, mediante el presente programa se quiere dar respuesta y acompañar aquellos procesos de inversión que desarrollan las empresas vascas, ya sean de industria, comercio o turismo, de tal forma que accedan a la financiación en las mejores condiciones posibles que ofrece el mercado a través de las Entidades Financieras. Se hace, además, un especial esfuerzo en desarrollar una gestión administrativa de los procesos que aproveche las posibilidades que nos ofrecen las TICs, en aras de conseguir una mayor simplificación de los mismos, una mayor eficiencia de los recursos y una respuesta al entramado empresarial más ágil.

Por todo ello, y con la finalidad de aplicar recursos públicos en segmentos y actuaciones específicas, que contribuyan de manera eficaz a favorecer la financiación de las inversiones, es voluntad de Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial S.A. (SPRI

tzaileekin batera, egindako inbertsioetarako laguntza eta finantzazio tresna integratu bat eskaini nahi die industria, merkataritza zein turismo arloetako ETEei, hazi daitezen, lehiakortasuna hobezaten eta enpresa proiektu berriak abiaraz ditzaten, eta tresna hori programa honetan zehazten diren neurrien bidez arautuko da.

## I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua.— Xedea.

Programa honen xedea da finantza laguntzak ematea aktibo finkoetan inbertsioak egiteko Euskal Autonomi Erkidegoko industria, merkataritza zein turismo sektoreetan.

### 2. artikulua.— Laguntzen nolakotasuna.

Programa honek aurreikusten dituen laguntzak ez dira itzulgarriak izango eta laguntzak gauzatzearren, mailegu eragiketek edo finantza errentamenduko eragiketek finantza kostu txikiagoa izango dute, betiere, programa honen itzalpean eta finantza erakundeekin berriaz sinatuko diren hitzarmenen itzalpean egiten direnean.

### 3. artikulua.— Onuradunak.

1.— Jarraian adierazitako baldintzak betetzen dituzten Enpresa Txiki eta Ertainek (ETE) eskuratu ahal izango dituzte programa honek arautzen dituen laguntzak:

- 250 langile baino gutxiago izatea.
- 50 milioi euro baino gehiagoko negozio bolumenik eta 43 milioi euro baino gehiagoko urteko balantze orokorrik ez izatea.
- Enpresa beste enpresa batzuekin elkartuta bada go eta elkartutako horiek akzioen % 25etik gorako eta % 50era arteko akzioak badituzte, datu horiek ehuneko berean egotziko zaizkio enpresa-talde osoari. Enpresa beste enpresa batzuekin loturik badago, eta hauek akzioen % 50etik gora badute, datu horiek % 100ean egotziko zaizkio enpresa-talde osoari. Nolanahi ere, horrela sortutako enpresa-taldeak berak bete beharko ditu aurreko betebeharrak.

Nolanahi ere, puntu honetako baldintzak interpretatzeko, mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak zehazteari buruzko 2003ko maiatzaren 6ko Batzordearen 2003/361/EE Gomendioan (EBAO —Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala—, L 124, 2003ko maiatzaren 20koa) edo hori ordeztu edo aldatuko duten xedapenetan ezarritakoa hartuko da kontuan.

S.A.), en coordinación con las demás entidades colaboradoras, poner a disposición de las PYMEs industriales, comerciales y turísticas un instrumento integrado de acompañamiento y financiación de las inversiones realizadas para el crecimiento de la empresa, la mejora de su competitividad, así como para la puesta en marcha de nuevos proyectos empresariales, que será regulado por las medidas que se establecen en el presente Programa.

## CAPÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

### Artículo 1.— Objeto.

Es objeto del presente programa establecer ayudas financieras a la inversión en activos fijos en los sectores industrial, comercial y turístico de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

### Artículo 2.— Naturaleza de las ayudas.

Las ayudas contempladas en el presente Programa tendrán la consideración de subvenciones no reintegrables y se materializarán a través de la reducción del coste financiero de las operaciones de préstamo o de arrendamiento financiero que se formalicen al amparo de este programa, y del Convenio que a tal efecto se suscriba con las Entidades Financieras.

### Artículo 3.— Entidades beneficiarias.

1.— Podrán acceder a las ayudas contempladas en el presente Programa las Pequeñas y Medianas Empresas (PYME), entendiéndose por tales aquellas que cumplan los siguientes requisitos:

- Que emplee a menos de 250 trabajadores/as.
- Que su volumen de negocio anual no supere los 50 millones de euros, o bien, que su balance general anual no rebase los 43 millones de euros.
- En el caso de que la empresa esté asociada con otras, entendiéndose como tal aquellas cuya participación accionarial esté entre más del 25% y el 50%, se imputarán al grupo los datos anteriores en el mismo porcentaje. En el caso de que la empresa esté vinculada con otras, entendiéndose como tal aquellas cuya participación accionarial esté por encima del 50%, se imputarán al grupo por el 100%. En todo caso, los requisitos anteriores deberán cumplirse el grupo de empresas así formado.

En cualquier caso para la interpretación de los requisitos señalados en este punto, se tendrá en cuenta lo establecido en la Recomendación 2003/361/CE de la Comisión Europea, de 6 de mayo de 2003, sobre la definición de microempresas, pequeñas y medianas empresas (DOUE, L 124, de 20 de mayo de 2003), o las disposiciones que la sustituyan o modifiquen.

**Industria sektorea:**

Programa honek aurreikusten dituen laguntzak eskuratu ahal izateko, jarduera nagusiaren arabera eta negozio kopuruari dagokionez, enpresa horiek industria arlokoak izango dira, ekoizleak, meatzaritza edota eraldakuntzakoak, edo arlo horiekin lotura duten produktu-prozesuaren inguruko zerbitzu teknikoetakoak, edo informazioaren eta komunikazioen gizartearen eremuak. Beti ere, sozietatearen helburuaren eta negozio kopuruaren arabera, enpresak jendearekin zuzeneko harremanetan egiten duen merkataritza jarduera ia hutsa izan behar da.

**Merkataritza sektorea:**

Programa honek aurreikusten dituen laguntzak eskuratu ahal izateko, jarduera nagusiaren arabera eta negozio kopuruari dagokionez, enpresa horiek merkataritza arlokoak izango dira. Honako hauek izango dira guretzat merkataritza jarduerak: batetik, saltzeko asmatan eskuratutako produktuak eta salgaiak merkatuaren esku jartzea, bere horretan, produktuak asko aldatu edo moldatu gabe, eta, bestetik, ekoizleak, artisauek edota industrialek eurek zuzenean ondasunak saltzea; ondasun horiek, baina, azken buruko kontsumorako izan behar dute, eta ez beste prozesu batzuetan sartzeko, merkaturatzeko edo hirugarren batzuei zerbitzuak eskaintzeko.

**Turismo sektorea:**

Programa honek aurreikusten dituen laguntzak eskuratu ahal izateko, jarduera nagusiaren arabera eta negozio kopuruari dagokionez, enpresa horiek turismo arlokoak izango dira eta jendeak enpresa horietara jotzeko modua izan behar du. Ondorio horietarako, guretzat turismo jarduerak izango dira kasuan kasuko Turismo moko lurralde bulegoak halakotzat egiaztatzen dituenak.

2.– Hauek dira aurrerago aipatutako enpresa onuradunen betebeharrak:

a) Euskal Autonomi Erkidegoan kokatu behar dituzte laguntza jasotzen duten inbertsio proiektuak.

b) Onuraduna izateko baldintzak betetzea indarrean dauden legeek zehazten dutenaren arabera.

c) Zor mugaeguneraturik ez izatea SPRI taldeko edozein elkarterekin, ez eta erakunde sustatzaile edo kolaboratzaileekin (hala enpresa onuradunak nola pertsona sustatzaileak edota loturik dauden sozietateak).

d) Onuradun direla egiaztatu behar dute laguntza eskabidea aurkeztean eta, hartara, eskabide formularioan eskatutako dokumentazioa entregatuko dute.

**Sector industrial:**

Podrán acceder a las ayudas contempladas en el presente Programa las empresas cuya actividad principal en cuanto al volumen de negocio, sea industrial, extractiva y/o transformadora, productiva, de servicios técnicos ligados al producto-proceso, conexos a los anteriores y empresas del ámbito de la sociedad de la información y de las comunicaciones. En todos los supuestos la actividad comercial directa al público deberá ser residual, en función de su objeto social y de su volumen de negocios.

**Sector comercial:**

Podrán acceder a las ayudas contempladas en el presente Programa las empresas cuya actividad principal en cuanto al volumen de negocio, sea comercial. Se entenderá por actividad comercial la puesta a disposición del mercado de productos o mercancías adquiridas con esa finalidad, sin modificación sustancial de las mismas, así como la venta de bienes de consumo final realizada directamente por los productores, artesanos o industriales, entendiéndose por tales bienes aquellos no destinados a integrarse en procesos de producción, comercialización o prestación de servicios a terceros.

**Sector turístico:**

Podrán acceder a las ayudas contempladas en el presente Programa las empresas cuya actividad principal en cuanto al volumen de negocio sea turística, siendo accesibles al público en general. A tal efecto, se consideraran actividades turísticas aquellas que sean acreditadas como tal por la Oficina territorial de Turismo correspondiente.

2.– Las empresas beneficiarias señaladas en el número anterior deberán:

a) Localizar los proyectos de inversión objeto de ayuda en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) Reunir los requisitos para obtener la condición de beneficiario de acuerdo a lo establecido en la legislación vigente.

c) No tener deudas vencidas con cualquiera de las sociedades del grupo Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. ni con las entidades colaboradoras y promotoras, tanto la entidad beneficiaria como las personas promotoras de la nueva empresa u otras sociedades asociadas o vinculadas a aquellas.

d) Acreditar su condición de beneficiario en el momento de presentar la solicitud de ayuda aportando la documentación requerida con el formulario de solicitud.

3.– Ez dira onuradun izango:

a) Sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko erakundeak, ez eta administrazioa partaide nagusizat duten enpresa edo erakundeak.

b) Eusko Jaurlaritzako sail hauen eskumen eremuetako inbertsio proiektuak dituzten enpresak: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Garraio eta Herri Lan Saila eta Nekazaritza eta Arrantza Saila.

**4. artikulua.**– Diruz lagun daitezkeen inbertsioak.

1.– Inbertsio proiektuetarako diru laguntzak jaso ahal izango dira honako baldintza hauek betetzen bada:

a) arau honen 3. artikuluko baldintzak betetzen dituzten enpresa onuradunek eginak izatea, eta

b) laguntza eskatzen den ekitaldiari dagokionez, inbertsio-kopuru onargarria gutxienez 100.000 eurokoa izatea industria sektorean, 30.000 euro turismo sektorean eta 30.000 euro merkataritza sektorean.

2.– Laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, laguntza jaso dezakeen inbertsioetatik joko da enpresaren aktiboari gehituko zaizkion aktibo finkoak eskuratzeko inbertsioa, baldin eta baldintza hauek betetzen bada:

a) Abenduaren 20ko 1643/1990 Errege Dekretuan bildutako Kontabilitate Plan Orokorrak ezarritako definizioaren arabera kategoria edo epigrafe hauetan dauden aktiboak izatea:

- 215 Informatika aplikazioak.
- 220 Lurrak eta ondasun naturalak (turismo arlokoak izan ezik).
- 221 Eraikuntzak.
- 222 Instalazio teknikoak.
- 223 Makineria.
- 224 Tresneria.
- 225 Beste instalazio batzuk.
- 226 Altzariak (merkataritza eta turismo arlokoak bakarrik).
- 227 Informazio prozesuetarako ekipoa.
- 228 Garraio elementuak (turismo arlokoak bakarrik).
- 229 Bestelako ibilgetu materiala.

Aktiboak lurrak izanez gero, eraikuntzak dituzten lurretara mugatuko da laguntza.

Dena den, aktiboek zuzeneko lotura izan behar dute enpresaren helburu soziala den jarduerarekin.

Aktiboen prezioetatik haien balio garbia hartuko da, hots, fakturatutako zenbatekoari Balio Erantsiaren gaineko Zerga kenduta ateratzen den balioa.

3.– Quedan excluidas como beneficiarias:

a) Las Sociedades Públicas y Entidades de Derecho Público, así como cualquier empresa u organización en la que su participación sea mayoritaria.

b) Las empresas cuyos proyectos de inversión corresponden a los ámbitos competenciales de los Departamentos de Educación, Universidades e Investigación, Transportes y Obras Públicas, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

**Artículo 4.**– Inversión subvencionable.

1.– Los proyectos de inversión serán calificados como subvencionables cuando:

a) sean realizados por empresas consideradas como beneficiarias según lo establecido en el artículo 3 de la presente norma, y que

b) el volumen de inversión admisible, correspondiente al ejercicio en el que se solicita la ayuda, sea como mínimo de 100.000 euros en el sector industrial, 30.000 euros en el sector turístico y de 30.000 euros en el sector comercial.

2.– Se considera inversión subvencionable a efectos del cálculo de las ayudas, la adquisición de activos fijos nuevos que se incorporen al activo de la empresa y que cumplan, los requisitos que, a continuación, se indican:

a) Que se trate de alguna de las siguientes categorías, según la definición que, al efecto, establece el Plan General de Contabilidad, recogido en el Real Decreto 1643/1990 de 20 de diciembre, en los epígrafes siguientes:

- 215 Aplicaciones informáticas.
- 220 Terrenos y Bienes naturales (excepto turismo).
- 221 Construcciones.
- 222 Instalaciones técnicas.
- 223 Maquinaria.
- 224 Utillaje.
- 225 Otras instalaciones.
- 226 Mobiliario (sólo comercio y turismo).
- 227 Equipos para procesos de información.
- 228 Elementos de transporte (sólo turismo).
- 229 Otro inmovilizado material.

En el caso de terrenos, serán subvencionables únicamente por la parte edificada.

En todo caso, los activos deberán estar directamente relacionados con la actividad que constituye el objeto social de la empresa.

Se considerará como precio de los activos su valor neto, entendiéndose como tal el importe facturado una vez deducido el Impuesto sobre el Valor Añadido.

Produktu turistikoak edo eskaintza osagarria sortzea helburu duten inbertsioak egiten badira, diruz lagundu ahal izango dira Kontabilitate Plan Orokorreko 228. epigrafean («garraio elementuak») sailkatutik dauden aktibo finko materialetan egiten diren inbertsioak, baldin eta horrelako aktiboak behar-beharrezkoak badira proiektua burutu ahal izateko.

b) Aktiboak lehenengo aldiz erabili edo abian jar-tzea. Erabilitako eraikin edo bestelako eraikuntzak es-kuratzen badira, berriak balira bezalako tratamendua emango zaie.

c) Horiek guztiek, gutxienez, bost urtean irautea en-presaren aktiboan (fakturan ageri den datatik aurrera zenbatuta).

d) Aktiboak, oro har, inori kontraprestazioarekin edo kontraprestaziorik gabe lagatakoak ez izatea.

e) Aktiboak, oro har, enpresa eskatzaileak berak fa-brikatutakoak ez izatea (eta inoiz ere ez da zenbatuko aktiboek dakartzaten kanpo kontsumoetatik gorako ba-liorik).

3.- Laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko denean, la-guntzak eskatzen diren urtean aktiboak eskuratzeko egindako inbertsioa baino ez da kontuan hartuko.

4.- 2007ko ekitaldian gauzatuko da inbertsio proiektua eta formalizatuko da/dira poliza(k).

## II. KAPITULUA MAILEGU ERAGIKETEN ETA FINANTZA ERRENTAMENDUKO ERAGIKETEN FINANTZA KOSTUA TXIKITZEKO LAGUNTZAK

### I. ATALA LAGUNTZEN EZAUGARRIAK

#### 5. *artikulu*a.- Finantza eragiketak.

1.- Atal honetan arautzen diren laguntzak emango dira enpresek diru-laguntzaren helburu den proiektua finantzatzeko egiten dituzten mailegu eragiketarako eta finantza errentamenduko eragiketarako. Eragike-ta horiek finantza erakundeekin formalizatu beharko di-tuzte enpresek, betiere, Programa honen babesean, eta Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua SAK finantza erakundeekin egingo duen lankidetzeta hitzar-menaren itzalpean, edo Kreditu Ofizialerako Erakun-deak finantza erakundeekin sinatuko duen finantzake-ta hitzarmenaren itzalpean.

2.- Enpresarekin eragiketa formalizatzen duen fi-nantza erakundeak KOEan irekita eta eskuragarri da-goen kreditu-bidean saldorik baldin badu, eragiketak esparru horretan formalizatu behar dira.

3.- Atal honetan aurreikusitako finantza eragiketak eurotan eta beste edozein dibisatan formalizatu ahal

Asimismo, en los supuestos de inversiones destina-das a la creación de productos turísticos u oferta com-plementaria, serán susceptibles de ayuda las afectadas a la categoría de activos fijos materiales en el epígrafe 228 «elementos de transporte» del referido Plan Gene-ral de Contabilidad, siempre y cuando su inclusión sea esencial para la integridad del proyecto.

b) Que sean utilizados o entren en funcionamiento por primera vez. En el caso de que se trate de la adqui-sición de edificios y otras construcciones ya usados, ten-drán el tratamiento de nuevos.

c) Que permanezcan, como mínimo, cinco años com-putables a partir de la fecha de la factura correspondien-te en el activo de la empresa.

d) Que, con carácter general, no se hallen cedidos a terceros, con o sin contraprestación.

e) Que, con carácter general, no hayan sido fabrica-dos por la propia empresa solicitante (y, en cualquier caso, nunca se computarán por un valor superior al de los consumos externos que incorporen).

3.- Para el cálculo de las ayudas se tendrá en cuen-ta, únicamente, el importe de adquisición de activos realizada en el año de la solicitud de las mismas.

4.- El proyecto de inversión y la formalización de la/s póliza/s correspondientes deberán estar materiali-zadas dentro del ejercicio 2007.

## CAPÍTULO II AYUDAS DESTINADAS TANTO A LA REDUCCIÓN DEL COSTE FINANCIERO DE LAS OPERACIONES DE PRÉSTAMO COMO DE ARRENDAMIENTO FINANCIERO

### SECCIÓN I CARACTERÍSTICAS DE LAS AYUDAS

#### *Artículo* 5.- Operaciones financieras.

1.- Las ayudas contempladas en la presente Sección, se aplicarán a las operaciones tanto de préstamo como de arrendamiento financiero destinadas a la financiación del proyecto objeto de subvención. Estas operaciones de-berán ser formalizadas con las Entidades Financieras al amparo del presente Programa y del Convenio de Co-laboración suscrito entre Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. y las mismas o del Con-venio de financiación suscrito entre el Instituto de Cré-dito Oficial y dichas entidades.

2.- En tanto en cuanto la Entidad Financiera corres-pondiente cuente con saldo en la línea abierta y dispo-nible en el Instituto de Crédito Oficial, las operaciones deberán formalizarse en dicho marco.

3.- Las operaciones financieras contempladas en es-ta Sección podrán ser formalizadas en euros o en cual-

izango dira, hurrengo artikuluetan ezarritako baldintzak betez gero.

Dibisak euratara aldatzeko truke-neurria finantza eragiketa baimentzeko baldintzen agiria sinatzen den egunekoa izango da, edo, eskabidearekin batera hala-korik badago, eragiketa formalizatzeko poliza egiten den egunekoa.

4.– Oro har, eskabidea egiten den ekitaldian bertan formalizatu behar dira poliza horiek, kontuan izanik inbertsioak ekitaldi horretan gauzatuko direla.

**6. artikulua.**– Diruz lagun daitezkeen maileguak.

Maileguen ezaugarriak:

a) Honako hauek joko dira diruz lagun daitezkeen mailegutzat:

– diruz lagun daitezkeen inbertsioaren % 70etik beherako kopurua, edo

– finantza erakundeak onartutako mailegu kopurutik beherakoa.

b) Epea: 5 eta 7 urte bitartekoa, hasierako ezaldia barne dela. Ezaldiak iraun dezakeen denbora, gehienez:

– 7 urterako maileguetan: 24 hilabete.

– 6 urterako maileguetan: 18 hilabete.

– 5 urterako maileguetan: 12 hilabete.

Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua SAK goian aipatutakoez bestelako epeak ere (dena den, gutxienez epea 5 urtekoa da) onartu ahal izango ditu, baldin eta mailegua formalizatzeko agirian berariaz aurrerazten bada mailegua Programa honetan ezarritako laguntza programari lotuta dagoela. Inguruabar horrek ez du aldaraziko laguntzen gehieneko zenbatekoa; hau da, gehienez jota, 7 urterako maileguei dagokien bera izango da, eta ezaldia ere gehienez 24 hilekoa izango da.

c) Mugaeguneratzeak: gutxienez, hilean behingoak.

d) Eragiketei aplikatuko zaien gehieneko interes-tasa:

– Programa honetako 5.1 artikuluan aurreikusitako hitzarmenean ezartzen dena.

e) Hitzarmenaren sinatzaileetarikoa den EBSren batek eragiketa abalatzuz gero, interes-tasa 0,25 puntu txikiagoa izango da.

**7. artikulua.**– Laguntza jaso dezaketen finantza errentamenduak.

1.– Kreditu Erakundearen Diziiplina eta Kontuhartzaitzari buruzko uztailaren 29ko 26/988 Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian dagoen definizioaren arabera finantza errentamenduaren bidez finantzatzeko

quiere divisa, siempre que éstas se ajusten a las condiciones que se fijan en los siguientes artículos.

El cambio de divisas a euros, será el de la fecha de la firma del documento de condiciones de autorización de la operación financiera o, en caso de haberse adjuntado a la solicitud, el de la fecha de formalización de la póliza de la operación.

4.– Con carácter general las pólizas deberán ser formalizadas en el año de la solicitud, teniendo en cuenta que las inversiones se deberán materializar en el mismo ejercicio.

**Artículo 6.**– Préstamos subvencionables.

Características de los préstamos:

a) Se considerará como préstamo subvencionable el importe menor de:

– el 70% de la inversión subvencionable, o

– el importe del préstamo autorizado por la entidad financiera.

b) Plazo: como mínimo 5 años y máximo 7, incluyendo el período de carencia inicial el cual será, como máximo:

– Préstamos a 7 años: 24 meses.

– Préstamos a 6 años: 18 meses.

– Préstamos a 5 años: 12 meses.

Por Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. podrán admitirse plazos diferentes (siendo en todo caso el plazo mínimo de 5 años) a los anteriormente señalados, siempre que en el préstamo formalizado se recoja expresamente que el mismo se incluye en el presente Programa de Ayudas. Este hecho no modificará la cuantificación de las ayudas a conceder, cuantía que no excederá, en ningún caso, de la correspondiente a los préstamos a 7 años, con una carencia máxima de 24 meses.

c) Vencimientos: como mínimo de carácter mensual.

d) El tipo de interés máximo aplicable:

– Se establecerá en el Convenio previsto en el artículo 5.1 del presente Programa.

e) En el caso de que la operación sea avalada por una Sociedad de Garantía Recíproca, firmante del Convenio, dichos tipos de interés se verán reducidos en 0,25 puntos.

**Artículo 7.**– Arrendamiento financiero subvencionable.

1.– Los Activos Fijos financiados mediante arrendamiento financiero, tal y como se define en la Disposición Adicional Séptima de la Ley 26/1988, de 29 de julio, sobre Disciplina e Intervención de las Entidades

diren aktibo finkoek programa honetan aurreikusitako laguntzak jaso ditzakete, baldin eta, 4. artikuluan aipatutako baldintza orokorreaz gainera, ondoko hauek ere betetzen badituzte:

– Enpresa onuradunak konpromisoa hartu behar du erosteko aukera baliatzeko, eta behar denean halaxe egingo du. Konpromiso hori dagokion formalizazio agiriari jaso behar da.

– Finantza errentamendua egiten duen erakundeak Finantza Errentamenduaren bidez Eragiketarako Finantzatzeko Hitzarmenaren sinatzaileetarikoa izan behar du.

2.– Finantza errentamenduko eragiketen ezaugarriak:

a) Honako hauek joko dira diruz lagun daitezkeen finantza errentamendutzat:

– Diruz lagun daitezkeen inbertsioaren % 70etik beherako kopurua.

– Finantza erakundeak onartutako finantza errentamenduaren kopurutik beherakoa.

b) Epea: gutxienez bi urte eta gehienez bost. Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua SAK goian aipatutakoek bestelako epeak ere onartu ahal izango ditu, baldin eta mailegua formalizatzeko agirian berariaz agerrarazten bada leasing-a edo finantza errentamendua programa honetan ezarritako laguntza programari lotuta dagoela. Inguruabar horrek ez du aldaraziko laguntzen gehieneko zenbatekoa, eta, beraz, ez da izango 5 urterako finantza errentamenduei dagokiena baino handiagoa.

c) Mugaeguneratzeak: gutxienez, hilean behingoak.

d) Eragiketei aplikatutako zaien gehieneko interes-tasa:

– Programa honetako 5.1 artikuluan aurreikusitako hitzarmenean ezartzen dena.

e) Hitzarmenaren sinatzaileetarikoa den EBSren batek eragiketa abalatu gero, interes-tasa 0,25 puntu txikiagoa izango da.

#### 8. artikulua.– Laguntzen zenbatekoak.

1.– Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua SAK, finantza erakundeekin sinatutako hitzarmenaren itzalpean, diru-laguntza bat emango du onartutako eragiketa bakoitzerako, hau da, eragiketaren interesaren 1,5 puntuko diru-laguntza oro har, gehi 0,25 puntuko diru-laguntza finantza erakundeekin sinatu beharreko hitzarmenaren sinatzailea den Elkarrekiko Berme Sozietateren batek eragiketa abalatu gero.

Edonola ere, interes tasen hobaria ezin da izan eragiketa baimentzean edo formalizatzean jarritako interes-tasa izenduna baino handiagoa.

de Crédito, podrán acogerse a las ayudas contempladas en el presente Programa siempre que, además de cumplir las condiciones generales señaladas en el artículo 4, cumplan los siguientes requisitos:

– Que la empresa beneficiaria se comprometa a ejercitar y ejercite en su momento la opción de compra, recogiendo dicho compromiso en el documento de formalización correspondiente.

